






Botoak 2015




Zinegotziak 2015



Botoak 2011



Zinegotziak 2011



PSE-EEK irabazi ditu udal hauteskundeak.- PSE-EE izan da bozka gehien lortu dituen alderdia 3.540 bozkekin, jarraian EHBilduk 2.365 jaso ditu, Lasarte-Oriak Ahal du 1.480, EAJk 1.428 eta PPK 477 eskuratu ditu. Zinegotzien arabera, PSE-EEK 7 izango ditu, EHBilduk 4, Lasarte-Oriak Ahal du hautesle taldeak 3, EAJ-PNVk 2 eta PPK 1. 2011ko datuekin alderatuta, herrian parte hartzea handiagoa izan zen atzokoan, abstentzioa %32,89koa izan zen, 2011an %35,88 izan zelarik. PSE-EEK aurreko udal hauteskundeetan baino 393 bozka gehiago jaso ditu, EHBilduk ere, zinegotzi bat galdu arren, bozka igoera izan du 197 hain zuzen, EAJ-PNVk 337 bozka irabazi ditu ere eta PP izan da bozka kopuruan beherakada jasan duen bakarra, 308 galdu ditu eduki duen zinegotzi bakarra galtzear egon delarik. Lasarte-Oriak Ahal du hautesle taldearentzat lehenengo udal hauteskundeak izan dira eta indarrez sartu da udaletxean, hiru zinegotzi izango ditu 1.480 bozka lortuta. Lasarte-Oriako Herritar Plataformak aurrekoetan 980 bozka jaso zituen eta bi zinegotzirekin jardun da azken legegintzaldian.

**BITRO ET INDUZIOKO
PLAKEN
ERAKUSKETA
HAUNDITU DUGU**

MAIATZEAN BAKARRIK

**MAHAI-TRESNERIA
OPARI PLAKA
BAT EROSTEA**

Bideo Lagunak
Etxekotresna elektrikoak

**12 ORDAINDU
HILABETETAN
INTERESIK GABE**

TIN: 0% TAE: 0%

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com | facebook.com/BideoLagunakTien21

HITZARMENAK

Bizikidetza eta oroimen historikoaren alde

Baketik eta Islada Ezkutatuak taldearekin sinatu ditu Udalak lan akordioak

Lasarte-Oriako Udalak aurten ere bizikidetza eta oroimen historikoaren alde lan egiteko bi hitzarmen sinatu ditu: Baketik eta Islada Ezkutatuak Oroimen historikoaren aldeko taldearekin. Bi erakundeek lanari jarraipena ematea da helburua.

TXINTXARRI

Ostegunean Lasarte-Oriako Udalak Baketik eta Islada Ezkutatuak taldearekin lan hitzarmenak sinatu zituen.

Bi erakundeek hitzarmenak izan zituzten iaz eta lanean ari dira herrian eta bere inguruetan. Baketik bizikidetzaren alde egiten ari da alderdi eta herritarrekin lanean eta Islada Ezkutatuak herritarren laguntzarekin 1931-36 errepublika eta ondorengo errepresio frankistan gertaturikoak aztertzen, ezagutzen eta aitortzen ari da, baita Txaldataxur eremuan indusketak egiten ere.

Lan honekin guztiarekin jarraitzeko Udalak bere babesa eman die hitzarmen hauen bidez.

Baketik

Ostegun goizean, Pablo

Barrio alkatea eta Iker Uson Baketikeko kidea izan ziren sinadura ekitaldian.

Pablo Barrio alkateak azaldu zuenez, bost lan arlo ditu hitzarmenak.

Baketik politikoa alderdi guztiak batzen dituen politikarien mahaia jarraipena emango zaio. Honetan berradiskidetzaren inguruko oinarriko ideiak partekatu eta landuko den bizikidetza programari buruzko adostasunetara iristea da helburua.

Herritarren arloan, berriz, parte-hartzea eta bizipenak partekatzeko esparruak sortzen saiatuko dira, besteak beste, giza eskubideen gaia lantzeko.

Bestetik, herritarren foroan ideologia ezberdinetako herritar talde bat ari da lanean.

Hezkuntzan, eskolako irakasleekin lehenik eta ondoren ikasleekin ere egin da lan



Baketik erakundearen izenean, Iker Uson sinatu zuen Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlan hitzarmena.

eta azkenik, lan honen guztiaren dibulgazioa edo zabalkundea egingo da herritarrei jakitera emateko.

Aurrera begira, korporazio berri bat sortuko dela baina kontsensua egotea bilatu behar dela aipatu zuen alkateak. "Hauteskundeak eta gero egoera ezberdina izango da tentsio gutxiago egongo eta aukera handiagoa egongo da lan honi bultzada emateko".

Iker Uson Baketik erakundeko kideak eskerrak eman zizkion Udalari proiektuarekin jarraitzeagatik, baita alderdi guztiei nahiz eta ikuspuntu ezberdinak izan, bizikidetzaren gaia jorratu behar dela ulertzeagatik.

Gainera, bizikidetzari aukera eman behar zaiola azpimarratu zuen, "ez da erraza baina baldintzak sortu behar dira". Eta hau prozesu bat bezala ikusi behar dela adierazi zuen, baita lanean jarraitu behar dela ere. "Ibilbide xumea eta polita egin da eta denok elkar ikasi dugu".

Islada Ezkutatuak

Arratsaldean, berriz, Islada Ezkutatuak taldeko Mailu Arrutirekin sinatu zuen alkateak hitzarmena.

Pablo Barriok taldeak bost ildo jarraituko dituela azaldu zuen: testigantzak jaso, ikerketa lana egin, toki fisikoak arakatu eta aztertu, informatze lana eta hitzaldiak eta entzute saioak.

"Pozik eta harro gaude lortutako emaitzekin eta Udalaren babesa izango dute haien ekarpenak egin eta

lanarekin jarraitzeko," adierazi zuen alkateak.

Mailu Arrutik aipatu zuenez, oroimen historikoaren arloan "dena zegoen egiteko eta emaitza onak izan ditugu".

Honetaz gain, hitzarmen honek dituen bi berrikuntza azpimarratu zituen.

Baketik taldeak urte hauetan bildutako testigantzak testura transkribatzeko eta materiala prestatzeko konpromisoa hartu du.


Bestetik, Txaldataxur eremuko indusketan auzolanean aurkitutako elementuak erakusteko leku bat izango du taldeak.

Honen harira, indusketara bisita gidatua egingo duela aurreratu zuen Islada Ezkutatuak taldeko kideak. Ekainaren 20an izango da hitzordua eta han aurkitutako lubaki eta materiala azalduko da. "Altxor bat ukitzen ari gara behatz puntekin. Lehen asko zegoen imajinatzeko eta gehiena azaleratu dugula uste dugu".

Honetaz gain, lubakiko garbiketa lanetan edo taldean parte hartzeko deialdia egin zien Islada Ezkutatuak taldeak herritarrei.



Pablo Barrio alkatea eta Mailu Arruti Islada Ezkutatuak taldeko kidea sinadura ekitaldian.

Diruz laguntzen duten erakundeak**Babeslea**

LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri**Erredakzioa:**

Maider Azurmendi, Jon Altuna,
Nerea Eizaguirre
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Maider Seguro, Jexux
Artebe, Gorka Alvarez, Pako
Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

SAN PEDRO JAIK

Festetako kartela aukeratuta

Nerea Uralderen lanak irabazi du lehiaketa

Udalak ezagutzera eman du San Pedro jaietako kartela zein izango den. Nerea Uraldek aurkeztutako lana izan da aukeratutakoa. Maiatzaren 4a izan zen azken eguna lanak aurkezteko eta guztiak lasarteoriasarean. eu gunean jarri ziren ikusgai herritarrek euren iritzia emateko aukera izan zezaten.

TXINTXARRI

Aurkeratu da San Pedro jaietako kartela. lasarteoriasarean.eu gunean ikusgai izan dira aurkeztutako lan guztiak eta dagoeneko irabazlea zein den erabaki da. Azken erabakia, dena den, udaleko Gazteria eta Festak batzordeak hartu du.

Gauzak horrela, San Pedro Jaiek badute 2015eko kartela. Nerea Uralderen lana erabiliko da festak iragartzeko, kartel eta programetan. Guztira 8 izan ziren aurkeztutako lanak eta Nerea Uralde andoaindarraren lanarentzat izan da azkenean saria.

Andoainen hainbat lehiaketetara aurkeztu izan da eta



Kartel honek iragarriko ditu San Pedro jaiak.

hauetako batzuk irabazi ditu ere. Besteak beste, 2012ko inauteriak iragartzeko kartela eta Emakumearen egunaren inguruko ekintzak iragartzekoa. Lasarte-Oriako jaietako kartel lehiaketara, lehenengo aldiz aurkeztu eta saria eraman du.

Herritarren esku

Azken hirutako deialdietan,

herritarrek eskuratu dute saria, 2012an Uxune Iparragirrenen lana hautatu zen Songin Dantzako txapela, 2013an Arantza Zulaikarena, honek herriko ekintza esanguratsuenak biltzen zituen eta iaz, Elena Dominguezen lana, blusen ideiei heltzen ziena. 600 euroko saria eskuratuko du andoaindarrak.

Azken egunak eskaerak egiteko

Errigora ekimenaren Kontserba loteen kanpainan eskaera egiteko azken eguna bihar izango da, maiatzak 26.

Saski produktu eta olioaren kanpainak izan zuten arrakasta errepikatzea espero dute sustatzaileek. 310 bidoi olio saldu ziren herrian, horietatik 91 ekologikoak.

Kanpaina honetan berriz, Nafarroa Hegoaldeko hiru ekoizlek parte hartu dute: Iturri, Maria Jesus eta Pedro Luis etxeetako produktuak daude aukeran.

Iaz bezala, sei produktu lote eskaintzen dira.

Potxak 720ml-ko 12 poto, 34 eurotan; orburuak 720ml-ko 12 poto, 41 eurotan; pikillo piperrak 425ml-ko 12 poto, 35 eurotan; pikillo piper ekologikoak 250ml-ko 12 poto, 41 eurotan; zainzuriak 425ml-ko 10 lata, 30 eurotan eta barazki



Asteartea izango da azken eguna eskaerak egiteko.

menestra 720ml-ko 12 poto, 36 eurotan.

Asteartea azken eguna

Herritarrek azken egunak dituzte eskaerak egiteko. Hauek Ttakuneko bulegoan edota Errigora.eus-en egin daitezke.

Lotea internetez eskatuta ere,

gainontzekoekin batera herrian jasoko da.

Bulegoan eginda, bertan eskaera orria bete beharko da eta ordainduta utzi eskaria.

Produktuak jasotzeko egunak, ekainaren 10 eta 11 izango dira. Ordua eta lekua aurrerago emango zaie jakitera eskatzaile guztiei.

SAN PEDRO JAIK

Sorgin Dantzako entseguak

San Pedro jaietako ekitaldi jendetsuenetakoa izaten da Oriatik abiatu eta herri guztia zeharkatzen duen Sorgin dantza. Sorgin dantzako entseguak ekainean hasiko dira eta astearte eta ostegunetan 20:00etatik aurrera izango dira. Horrela entsegu egunak izango dira, ekainak 2, 4, 9, 11, 16, 18 eta 23. Azken ostegunetan hilak 25 ez da entsugurik egingo Sorgin Jaiak hasten direlako.

Eguraldi ona egiten badu, Okendo plazan egingo dira entseguak eta bestela, Landaberri ikastetxeko Garaikotxeako eraikinean.

AISIA

Jolasen altxorra saioa isla plazan gaur

Amaraun Klubeko lagunek "Jolasen Altxorra" ekimena antolatu dute. Saioetan alaba, anai, aita, amona, aitona, gurasoak... adin guztietako senideek batera jolasteko aukera izango dute. Jolasak ezagutzak eta baloreak oharkabean transmititu eta jasotzeko tresna dira eta senideek eginez gero, ez dago haurrentzat hoberik. Hizkuntza transmisioa ere garrantzitsua denez, saioak euskaraz dira.

Ekimena lau saioz osatzen da eta gaur izango da hirugarrena Isla Plazan. Hitzordua 17:00etan da eta hurrengo saioa Zabaletako jaietako izango da baina honen eguna eta ordua zehazteko daude. Saioetan parte hartzeko ez da izenik eman behar. Amaraun Klubeko lagunek familiei gonbida egiten diete saioetara hurbildu, gozatu eta jolastera.

IKASTAROA

DYak Usurbilen Uretako Sorospen ikastaroa antolatu du

Uretako kurtsoa larunbata eta igande guztietan izango da ekainaren 6tik 28ra bitartean, larunbatetan, goizeko 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 15:00etatik 19:00etara eta igandetan, goizeko 09:00etatik 13:00etara. Heziketa Usurbilgo Oiaro kiroldegian eta DYak eskualdean duen Ordezkaritzan izango da Usurbilen (Muna-Lurra, 26).

Uretan aurki daitezken arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko da. Beharrezkoa da Lehen sorospen eta sorosle ikastaroa aurrez izatea. Bestalde, ikastaro amaierako frogak gainditzeko dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Uretako Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango du.

Matrikularen kostua, ikastarorako txostena barne delarik 220 eurokoa da. Plazak mugatuak dira, ematen den hezkuntzaren kalitatea bermatzearren. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, Arkaute, kurtso hau, homologatua izateko aukera ematen du.

Izena emateko edo jardura honen inguruko informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefonora.

UDALA

Erregistroa eta bake epaitegiaren leku aldaketak

Udaleko lehenengo solairuan kokatuko dira ostegunetik aurrera erregistroa eta bake epaitegia. Bake epaitegia orain arte Atsokabarren egon da, Asteasuain 1 behean, eta zerbitzuak batu aldera, udaletxe berriko lehenengo solairuan hainbat ego-kitzapen lan egin dira zerbitzua bertan kokatzeko. Herritarrek beraz, ostegunetik aurrera udaletxe berriko sarreran izango dute erregistroa berriz ere, eta honekin bake epaitegia.

ESKOLA KIROLA

Ikasturte amaierako festa larunbatean Michelinen

Herriko bi ikastetxeetan ikasturte honetan zehar eskola kirolean parte hartu duten 430 haur eta gazteek hitzordu garrantzitsua izango dute datorren larunbatean, maiatzak 30, Michelinen.

10:00etatik aurrera festa giroan jolas eta kirol ezberdinetan aritzeko aukera izango dute 12:30ak bitartean. Ohi bezala, festa honetan, ondo pasatzeaz gain, ezustekoak izango dira eta opariak ere jasoko dituzte gaztetxoek.

Arduradunek gogoratzen dute topaketa honetara egitasmoan parte hartu duten guztiak daudela gonbidatuta, LH1etik hasita eta DBH arteko taldeak.



Kukukako ikasle txikiak buru abiatu zen desfilea Manuel Lekuona paretik.



Gaztetxoek ederki pasa zuten dantzan.



Ondo ikasitako dantza pausuak jarraitu zituzten Kale Nagusitik.



Trinketera iritsita talde bakoitzak erakustaldi labur bat egin zuen.



Gurasoen begiradapean dantzatu zuten Kukukako ikasleek.

Desfile koloretsua

Kukukak larunbatean eman zion hasiera antzerki eta dantza asteari

Herriko dantza eta antzerki eskolak desfile alaiarekin hasiera eman zion larunbatean antzerki eta dantza astea-ri. Eguraldi goibelari aurre eginez, desfilean atera ziren kultur etxetik eskolako ikasle eta irakasleak euren dantzak erakutsiz. Okendon aurreikusitako erakustaldi laburra, Trinketean egin zuten.

TXINTXARRI

Eguraldiari begira esnatu ziren larunbatean Kukukako kideak, euripean pixkanaka elkartzen joan ziren ikasleak Manuel Lekuonan.

Irakasleek ohiko desfilea egin beharrean, Trinketera zuzenean joatea erabaki zuten hasieran. Hala ere, kolore alaiak uxatuta edo, aterruna izan zen eta azkenean, desfilea erdigunetik egin eta Trinketerako bidea luzatu zuten prestatuta zituzten dantzak erakutsiz.

Trinketera iristean, talde guztiek minutuko erakustalditxoak eskaini zuten ikasturte honetan ikasitako guztia jende aurrean aurkezteko.

Ohi bezala, Kukukaren

desfileak kolorea eman zien herriko kaleei. Ikasleak eskolako kamiseta berdeak jantzi- ta atera ziren.

Horrela, antzerki eta dantza asteari hasiera eman zitzaion.

Gaurtik emanaldiak

Asteburuko irekiarekin batera gaur bertan izango dira lehenengo emanaldiak.

“Edurnezuri eta 7 ipotxak” antzezlan eskainiko dute DBH 1eko ikasleek. Goizean, 11:00etan euren irakasle eta ikaskideen aurrean egingo dute saioa eta arratsaldean 19:00etan, eskainiko dute berriro guraso eta lagunen aurrean.

DBH 2ko dantza garaikideko ikasleek ere goizeko saioan, antzerkiaren ostean

erakutsiko dute ikasturtean ikasitakoa. Gurasoek ekainaren 14an izango dute aukera hau ikusteko. Dantzari eskainitako egunean hain zuzen ere.

Asteazkenean bi antzezlan izango dira Manuel Lekuonan, 11:30ean eta 19:00etan egingo dituzte saioak. Kasu honetan, LH5-eko ikasleek “Artisten Herria” eta “Gu ere artistak gara” emanaldiak eskainiko dituzte.

Ostegunean, 11:00etako saioan DBH3koen “Aupa Etxebeste” antzerkiak gozatu dute ikaskideek eta jarraian, DBH 3 eta 4ko ikasleek dantza garaikide taldea eta DBH 2 eta 3ko euskal dantza sorkuntzakoa ariko dira. 19:00etan saio irekia egingo dute antzerkiko ikasleek.

Maiatzaren 30ean 20:00etan helduen taldeko “Auzoa” antzezlan izango da eta ekainaren 8an jarraituko du egitarauak beste hainbat saiorekin.



Aterri mantendu zen desfilea egin bitartean, hala ere, Trinketean dantza egitera erabaki zen eta ez Okendon aurreikusi moduan.



Normaltasun osoz igaro zen eguna herriko hauteslekuetan.

Alkategaien balorazioa

Hauteskunde gauean bertan Lasarte-Oriako hautagaiek emaitzak aztertu dituzte

Lasarte-Orian aurkeztutako bost zerrendetako buruekin lehen balorazioak jaso genituen bart. Guztiak euren egoitzetan bildu ziren emaitzen zain, zerrenda kide eta bizilagunen babesarekin aurre egin zioten urduritasunez betetako gauari.

Hona alkategaiek bart egindako lehenengo adierazpenak.

PSE-EE

Jesus Zaballos PSE-EEren hautagaia benetan gustura zen lortutako emaitzekin: “Oso eskertuta gaude lasarteoriatar guztiei, berriro ere Lasarte-Oria gobernatzeko gugan konfidantza jarri dutelako. Duela lau urte alkatetza galdu genuen hiruko akordio bategatik eta badirudi min egin diela, Bildu bost zinegotzi izatetik lau izatera pasa delako eta EAJk ez duelako zinegotzi gehiago lortu. Gu oso pozik gaude ia 400 herritar gehiagok bat egingo dutelako proiektu sozialistarekin. Duguna baino herri hobea merezi dugu eta horretarako egingo dugu lan”.

EH Bildu

la berrehun bozkako igoera izan arren, azken unean bos-

garren zinegotzia galdu izanak min egin zion koalizio abertzaleari Pablo Barriok azaldu bezala: “Pozik gaude lau urteotan egindakoarekin, beste bizitza bat, beste giro bat, beste alaitasun bat izan du herriak eta lanketa horrekin jarraitu egin behar da aurrerantzean ere. Garbi dago, boto aldetik igo egin gara, pozteko modukoa da hori, baina zinegotzi bat galdu dugu. Dena den, bigarren lekuan jarraitzen dugu eta horrek aukera ematen digu lan polit bat egiteko. Ez dago ezer erabakita, korporazio berriaren eraketa hiru aste barru izango da, gure eskaintza eta planteamendua aurrea eramaten saiatuko gara”.

EAJ/PNV

Sentsazio gazi-gozoa zuen Estitxu Alkorkak lehen balorazioan “Bozka kopurua dextente igo dugu, %40 inguru, baina ez da nahikoa izan

hirugarren zinegotzia lortzeko. Emaitzetan ikusten dugu Lasarte-Orian ez dela ezer aldatu. PSOEek zinegotzi kopuru bera atera du, Bilduk bat gutxiago, alderdi berria, hori bai, Podemosekoak dira. Bestalde, pozik gaude Gipuzkoan alkatetza garrantzitsuak berreskuratu ditugulako”.

Lasarte-Oriak Ahal du

Arkaitz Naya emozioz gainezka zegoen hiru zinegotzi lortuta: “Eskerrik asko denoi, lan asko egin dugu hemen egoteko eta oso pozik gaude, lan gogorra datorkigu bihartik aurrera, benetako lana, talde handi bat daukagu eta gu bozkatu gaituzten bizilagunek merezitako maila erakutsiko dugu, babesa eman ez digutenentzat ere lan egingo dugu. Eskerrik asko”.

PP

Alex Saenz, azken uneko emaitzei esker, zinegotzi izango da datorren legegintzaldian, baina Gipuzkoan PPK izandako emaitza kaxkarrak medio, Donostiara joan zen bart probintziako alderdikideei babesa ematera.



Balorazioak bideoan txintxarri.eus atarian.



Sebastián Redondo

**ITURGINTZA
GASA
KALEFAZIOA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ERABERRITZEAK**

DUCHALASARTE

24 ordutan, bainuontzia duxagatik aldatzen dugu



JAIZKIBEL ENPARANTZA 8 BEHEA, SASOETA AUZOA • TEL.: 943 371845 // 652 775373

ARETO-FUTBOLA.

Hasi dira Herriko Txapelketako play-offak

Amaitu da XXXII. areto-futbol txapelketako fase erregularra; Txindokik irabazi du liga

Ostadar SKT-ko talde federatuek euren ligak amaitu badi-tuzte ere, herriko txapelketan dena dago erabakitzeke. Aste-buru honetan hasi dira play-offak, final-zortzirenetan. Denera zortzi talde daude beraz koadroan, eta helburua bakarra da, ekainaren 20an jokatu den final handian ego-tea, ikurrina eta garaikurra etxera eramateko.

JON ALTUNA EGITEGI

Kito. Amaitu da sei hila-bete iraun duen fase erregularra. Txapelketan izena eman zuten 13 taldeek 24 neurketa jokatu dituzte elkarren aurka Michelingo areto-futbol kantxan, eta dagoeneko erabakita daude hurrengo faserako partiduak.

Asteburu honetan ekin diete play-offei, final-zortzirenetan. Joan-etorriko kanporaketak izango dira denak: Txindoki-Reformas Lagunak, Insausti-Buenetxea, Punto-Urdaneta HK eta Izkiña Taberna-Viña del Mar izango dira nor baino nor final-laurdenetara igarotzeko borrokan.

Txapelketa irabazteko faboritoak azken urteotako berak dira, Txindoki eta Izkiña hain zuzen. Liga erregularrean lehenengo eta bigarren egin dute hurrenez hurren. Txindokik 63 puntu batu ditu 20 neurketa irabazi, hiru berdindu eta bakarra galduta. Izkiñak aldiz, 18 irabazi, lau

berdindu eta bi galdu ditu. Normalena litzateke bien arteko finala ikustea ekainaren 20an udal-kiroldegian. Baina kanporaketa bidezko sisteman edozer gerta daiteke eta kontuz ibili beharko dute El Punto, Insausti edota 2012an txapelketa irabazi zuen Buenetxearekin. Txindoki 2013an izan zen garaile eta 2014an Izkiña Taberna. Azken urteotan ikusten denez, zaila da bi aldiz jarraian txapelketa irabaztea.

Kontsolazio play-offa

Txapeldunen fasera sailkatu ez diren gainontzeko bost taldeek euren arteko koadro propioa jokatu dute. Indaux-Ilargi eta Bar Also-Txoko Taberna dira asteburu honetan eta datorrenean jokatuko diren neurketak. Trumoi final-laurdenetan batuko da kontsolazio txapelketara, ligan bederatzigarren egin izanagatik. Kontsolazio finala ekainaren 20an jokatu da, final handiaren aurretik.



Izkiña eta Txindoki iazko bi finalistak elkarrekin talde argazkian. Izkiñak irabazi zuen, 5-2ko emaitzaz.

Pitxitxi saria

Ander Pecharroman Buene-txea taldeko aurrelaria izan da liga erregularreko golegile nagusia. 24 partidutan 53 gol sartu ditu, neurketako bi baino gehiago beraz. Eta horietako bat edo beste, benetan ikusgarria gainera, postura behartu eta era akrobatikoan sarturikoa. Pecharromanek baino hamar gol gutxiago, 43, sartu ditu Asier Rubio Izkiñako jokalaririk eta hirugarren Txindokiko Javier Gomez izan da, 34rekin. Ate aurreko ikuskizuna ere ziurtatuta dago txapeldunen fasean.



Asteburu honetan hasi dira fase erabakigarriko neurketak jokatzen.

IGERIKETA.

Buruntzaldea IKTko igerilariak GIF 3 eta Sara Carracelas sarietan

Bi lehiaketa izan zituzten Buruntzaldea IKTko gazteek maiatzaren 9an. Goizean, infantil, junior eta absolutuak Paco Yoldin aritu ziren GIF 3 Sarian parte hartzen eta arratsaldean berriz, Nahia Zudaire igeriketa egokituko Sara Carracelas Sarian izan zen.

GIF 3 sarian, 22 marka pertsonal, taldeko errelebutako sei marka berri eta taldeko bi errekor ezarri zituzten Buruntzaldea IKTko neska-mutilek. Sailkapen orokorrean Iñigo Ibarburu hirugarren izan zen absolutu mailan.

“Sari honetan, helburu nagusiak berriro ere lehiaketara itzultzea eta entrenamenduetan zehar prestatutako zenbait gauza aplikatzea izanik, oso gustura gaude gure igerilariak egindakoarekin.



Buruntzaldea IKTko gazteak Paco Yoldi igerilekuan.

Gainera, lehen aldiz igerileku luzean lehiatzen zuten zenbait gaztek lan bikaina egin zuten euren frogetan, igerileku mota honekin lehen kontaktua izanez eta pixkanaka neurria hartuz”, zioen Borja Apeztegia herriko klubeko prestatzaileak.

Bestalde, Nahia Zudairek igeriketa egokituko Sara Carracelas Sarian parte hartu zuen, Erreterian. Zudaire 50 eta 100 libre eta 50 tximeleta frogetan aritu zen. Lortutako marka eta emaitzei esker sailkapen nagusian bigarren postua eskuratu zuen.

ESKIA.

Enara Fernandez eskiatzaileak denboraldi amaierako bazkaria egin du asteburuan

Bazkaria egin zuten larunbatean Euskadiko kirol egokituko federazioko kideek, itsuentzako eskiatzaileen alorrean. Bertan izan ziren, besteak beste, Enara Fernandez eta haren guraso eta senideak estatuko eski teknikariek batera Joseba Gonzalez, Agustin Sopelana eta Vanessa Servet.

Denboraldi amaierako bazkaria egin eta bide batez herriko eskiatzaile gaztea talde nazionalean sartu izana ospatu zuten. Hemendik aurrera asko bidaiatu beharko du lasarteoriarrak. Esaterako, udan Alpeetan bi aste pasako ditu, azaroan Herbeheretara joango da eta abenduan berriz, Austriara. 2016. urtea lehiaketa preolimpikoa izango da Rion eta han parte-hartzea espero du lasarteoriarrak.



Enara Fernandez Federazioko teknikari, gida eta kideekin.

— Agenda —

Ostirala 29, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Literatura bertsotan

Ttakunek antolatutako Udaberriko saioa izango da. "Doinuak lumaz" da emanaldiaren izena eta honetan bertsoa literaturarekin uztartuko da. 11 idazleren testuetan oinarrituko da bertso saioa eta Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña izango dira kantuan. Uxue Loinaz ariko da gai jar-tzaile lanetan. Musikak ere izango du bere tarte. Sarrera 5,50 euro. Hama-rreko bonoa, 45 euro, aurrez erosita.

I. Dantzari eguna
OKENDO PLAZA
Larunbata 30, 18:00etan
Erketz EDT-k antolatuta I. Dantzari eguna ospatuko da. Añorgako Arkaitz Dantza taldea eta Hernaniko Ttarla Dantza taldea dira gonbidatuak. Herriko kaleetatik desfilea egin eta emanaldia eskainiko dute hiru dantza taldeek.

Dantzari txiki eguna
LASARTE-ORIA
Igandea 31, egun osoa
Erketz EDTek antolatuta XXVII Dantzari Txiki eguna egingo da. Goizean, haur eta gaztetxo taldeek herriko hainbat txokoetan egingo dute dantza; arratsaldean, berriz, Okendon emanal-dia eskainiko dute.

Hernani
Garagardo azoka
ATSEGINDEGI PLAZA
Osteguna 28-Igandea 31
Hernaniko Errugbi taldeak antolatuta, XII. Garagardo azoka izango da. Oste-gunean Hernaniko Musika Banda, osti-ralean 80tharrak musika taldea eta igandean ekitaldi berezia eta 500 lagu-nentzako bazkaria.

Usurbil
Hitzaldia
POTXOENEA
Osteguna 28, 19:00etan
Kirol munduko arau eta baloreen ingu-ruko hitzaldia. Hizlariak Luis Zulaika aditua eta herriko zenbait kirolari izan-go dira. Bideratzailera, Haritz Zubiaur. Usurbil F.T. antolatua.

Lasarte-Oria
13. Antzerki eta Dantza astea
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Astelehena 25, 19:00etan
Kukuka dantza eta antzerki eskolako DBH1 mailako gazteek 'Edurne zuri eta 7 ipotxak' lana eskainiko dute. Sarrera doakoa.

Asteazkena 27, 19:00etan
Kukuka dantza eta antzerki eskolako LH5 mailako gaztetxoek 'Artisten herria' eta 'Gu ere artistak gara' lanak eskainiko dituzte. Sarrera doakoa.

Osteguna 28, 19:00etan
Kukuka dantza eta antzerki eskolako

DBH3 mailako gazteek 'Aupa Etxebes-te!' lana eskainiko dute. Sarrera doan.

Larunbata 30, 20:00etan
Helduen taldeak 'Auzoa' lana eskainiko du. Sarrera doakoa.

Hitzaldia
ELEBELTZ TOPAGUNEA
Asteartea 26, 19:00etan
Ametis Jordan Arrietak transfeminismoa eta queer teoriak hitz egingo du. Sarrera doan.

Zinea
ELEBELTZ TOPAGUNEA
Asteazkena 27, 19:30ean
Sexu genero eta identitatea jorratzen dituen 'Fakeorgasm' documentalaren proiektzioa eskainiko da. Sarrera doan.

Erakusketa
JALGI KAFE-ANTZOKIA
Maiatzan zehar
Atzegi elkarteak erakusketa osatuko du #elkarrion kanpainako selfie-kin. "ElkarriOn adimen urritasuna duten pertsonak asko dute emateko" kanpai-naren barruan, jendeak bidalitako argazkiekin egindako bilduma izango da ikusgai.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Ekainaren 5 a arte
Brancussiko ikasleen margolan eta arte-lanen erakusketa ikusgai.

— Herritarren txokoa —

Oriatarren bazkaria
Karmengo Amaren egunean, uztaila-ren 16an, Oriatarren bazkaria antola-tu dute El Jardin jatetxean. Aurten Karmengo Amaren kaperaren 75. urteurrena ospatuko dute eta On Ramon Uribe txeberria apaizari ome-naldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzuarengatik. Bazkari-az gozatu nahi duten herritarrek jate-txean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

Torredembarrara irteera
Lasarte-Oriako lagun talde batek Kataluniako Torredembarra herrira joateko autobusa antolatu du. Topaketa kultural honetan parte har-tzeko jendea behar dute. Bereziki Oriako Sorgin Dantza dantzatuko duten herritarren bila ari dira. Maiatzaren 29an izango da irteera

eta 31an itzuliko dira. Autobusaren prezioa 40 eurokoa da. Hilaren 30eko zikiro janarena berriz, 20 euro. Izena emateko zerrendak Artizar eta Ilargin daude. Internetez, lot.topaketa@gmail.com helbidera idatzi dezakete interesatuek.

1960an jaioetakoen afaria
Udaberri elkartearen egingo da maiat-zaren 30ean. Honetan parte hartze-ko aurrez izena eman behar da 688 665 082 edo 659 775 811 telefono-ara deituta maiatzaren 27a baino lehen.

Lasartetik Esloveniara!!
Lasarte taldea, aurten ere, udako bidaia prestatzen ari da. Bisitatuko dituen lekuak: Bled, Maribor, Ljubljana, Postjona kobazuloak, Istria... Interesa duzuenok deitu tele-fono honetara: 661 41 78 53 Plaza mugatuak.

— Hemeroteka —


Duela 1146 ale

1998ko maiatzean, Xirimi-ri elkarteak bere 7. urteu-rrera ospatu zuen. Sei eguneko egitaraua prestatu zuen elkarteak orduan eta kideek balorazio ezin hobea egin zuten. "Maia-tzaren 18tik 23ra antolatu-tako ekintzetan jende askok parte hartu du," azpimarratu zuten.

Maiatzaren 23an egun osoko jaialdia antolatu zuten. Ekintza ugari egon ziren Aralar plazan eta elkartearen bertan, hala nola, toka eta bolo txapelketa, preso-oi omenaldia, dantzariak, trikitilariak, bertsolariak eta gau aldera 80 bat lagun bildu ziren afari goxoa dastatzera.

Baina ez zen hori urteurreneko ekimen bakarra izan. Maiatzaren 19 eta 20an, preso-oi eta Irlandako egoerari buruzko hitzaldiak izan ziren elkar-tean. Lehenean Juanito Nazabal preso ohia izan zen hizlari eta bigarre-nean, berriz, Elena Beloki, Herri Batasunako Mahai Nazionalako kidea eta Maite Ubiria Egin egunkari-ko Nazioarteko Saileko burua. Maiatzaren 22an rock kontzertua izan zen Lasarte-Oriako Minbizia eta Andoaingo Gaizkiñe taldeen eskutik.

Iaz 25.urteurrena ospatu zuen elkarteak. Egun Herriko tabernen auzia-gatik ebazpenaren zain dago elkarte.



XIRIMIRIEN 7. URTEBETETZEA:
Xirimi Kultur Elkarteko urtebetetzerik balorazio ezin hobea egin dute elkartearen 7. urtemugan bertutako gero-
"Maiatzaren 18tik 23ra antolatutako ekintzetan jende askok parte hartu du. Horrez gain, urteurrenaren ospakizuna,
antolatutako sarrutako Batzordeak lanerako arazitutako hiru-oiu zuzenaz gero-
Maiatzaren 23an jende asko bildu zen egun osoan zehar jaia giroa zutenak. Gau aldera 80 lagun inguru bildu ziren elkar-
tearen bertan eta kideek balorazio ezin hobea egin zuten. "Maia-
tzaren 18tik 23ra antolatu-
tako ekintzetan jende
askok parte hartu du,"
azpimarratu zuten.
Maiatzaren 23an egun
osoko jaialdia antolatu
zuten. Ekintza ugari
egon ziren Aralar
plazan eta elkar-
tearen bertan, hala
nola, toka eta bolo
txapelketa, preso-oi
omenaldia, dantza-
riak, trikitilariak,
bertsolariak eta
gau aldera 80 bat
lagun bildu ziren
afari goxoa dasta-
tzera.
Baina ez zen hori
urteurreneko ekimen
bakarra izan. Maia-
tzaren 19 eta 20an,
preso-oi eta Irlandako
egoerari buruzko hitz-
aldiak izan ziren el-
kar-tean. Lehenean
Juanito Nazabal preso
ohia izan zen eta bigar-
renean, berriz, Elena
Beloki, Herri Batasun-
ako Mahai Nazionala-
ko kidea eta Maite
Ubiria Egin egunkari-
ko Nazioarteko Sai-
leko burua. Maiatza-
ren 22an rock kontz-
ertua izan zen Lasar-
te-Oriako Minbizia
eta Andoaingo Gaiz-
kiñe taldeen eskuti-
k.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Irakurle Txokoko kideak, Jalgunekoak eta Musika Eskolako trikitilari eta pandero joleak pailazoein dantzan.



Xumelako kideek abestu zuten amaieran goraino betetako antzokian.

Pailazoei harrera beroa

Saio bakoitzean 520 lagun elkartu ziren

Larunbatean Irakurle Txokoak antolatuta, Txo Mikmak txikiaren abenturez gozatu ahal izan zuten Manuel Lekuonara hurbildu zirenak. Herriko Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei bi emanaldi eskaini zituzten eta bietan, goraino bete zuten kultur-etxeko aretoa. Haur zein helduek ederki pasa zuten kantuan eta dantzan.

Eserlekuan gelditu egoteko zailtasunak izan zituzten larunbatean Manuel Lekuonara hurbildu ziren ikusleak. Izan ere, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen azken ikuskizunak dantzan jarri zituen behin baino gehiagotan.

Irakurle Txokoak antolatutako bi saioetarako sarrerak agortuta, bakoitzean 520 lagun izan ziren ikuskizunaz gozatzen.

Pirritx, Porrotx eta Mari-

motots hondartza garbitzera joan dira Pupu eta Lorerekin eta bertan, egurrezko baloeontzian topo egin dute aitona Rokerekin. Ezustean Txo Mikmak indioa Ternuatik Euskal Herriraino etorri da bere balearekin batera.

Itsasoa garbi edukitzearen garrantzia eta kutsadurari aurre egiteko mezua zabaltzeko zuten pailazoen lagun berriek. Txok guztiak gonbidatu zituen Pasaian kokatuta dagoen Albaola museora ger-

turatu eta bertan eraikitzen ari diren baleontzia ezagutzera.

Herritarrek oholtzan

Herriko ikuskizunak ordea izan zituen hainbat gonbidatu berezi. Musika eskolako trikitilari eta pandero joleak harrera egin zieten ikusleei euren doinuekin. Horretaz gain, dantza egin zuten Jalguneko eta Irakurle Txokoko lagunekin batera saioaren amaieran. Jalguneren 'Pusoka-pausoka' kanta izan zen denek elkarrekin dantzatutako bat. Xumela koruko kideak izan ziren ere bi ikuskizunetan parte hartzen eta hauek, pailazoen laguntzarekin, 'Egun da Santi Mamiña' kanta eskaini zioten euren zuzendaria den Txapasi omenalditxo moduan.



HIPODROMO ETORBIDEA

www.hipodromoetorbidea.com

hipodromo@muriasgrupo.com

Tel.: 943 372400



Eraikitzen hasten gara!

DEITU